

DESKRIBAPENA:

Proiektu honetan sortuko den produktua aplikazio bat izango da, Compass izenekoa, ingelesez iparrorratz esan nahi duena. Aplikazio honen helburua, espetxean egon diren pertsoneri, espetxetik atera bezain pronto lana aurkitzea da. Aplikazio honetan, ex-presoeek fitxa bat bete beharko dute beraiei buruzko hainbat datuekin. Fitxa hori sarean zintzilikatuko da. Ondoren, enpresa ezberdinek beraien lan eskaintzak zintzilikatuko dituzte, lan horretarako bilatzen duten pertsonaren perfila aipatuz, betiere jakinik aplikazio horren bitartez aurkituko dituzten langileak espetxean egon direla. Ex-presoa batek enpresa baten lan eskaintza baterako eskatzen diren baldintzak betetzen baditu, automatikoki lan eskaintza hori egiten duen enpresarekin kontaktuan jarriko zaio beraiekin elkarriketa bat izateko. Behin langilea enpresan lanean dagoelarik, proiektu honetan parte hartuko duten gizarteratzaileek, bai ex-presoa bai enpresa bestearekin pozik daudela ziurtatuko dute, eta hala ez bada, horrela senti dadin egin beharreko guztia egingo dute.